



# SEXU-ORIENTAZIOAREN ANIZTASUNA ETA

## BULLYING HOMOFOBIKOA



*Olga Alarcón*

## 1. Denok heterosexualak garelako aurreiritzia

- Homosexualak beharturik nortzuk diren esatera
  - Aurrekoren zergatia.
  - "Armairutik at " delakoa.
- Sexu-orientazio guztien definizioaren beharra
  - Heterosexualitatea. Definizioa (Noruegako... )
  - Homosexualitatearen definizioa
- Homosexualitatea sexuari soilik lotuta al dago?
- 18/20 urtetik aurrera agertzea. Perretxikoak ote?
- Ikasle ikustezina – sumagaitza -

## 1. Gay eta lesbianen eskubideak, giza-eskubideak ote? Infrahistoriaren zenbait bilakaera.

- Giza eskubideak
- Haurren eskubideak

## 2. Indarrean dauden legeak.

- EAE-ko 2003ko maiatzaren 7ko izatezko bikoteak arautzeko legea
- 2005 kode zibilaren aldaketa. Beste hiritarrekiko berdintasuna
- Gerokoak. Egiteke dagoena

## 3. Gazte homosexualen egoera. Zenbait ikerketa.

- Eskozia - Ian Rives.
- Kalifornia – Molly O'Shaughnessy.
- Coslada, San Bartolomé de Tirajana, Donostia – Pichardo eta Molinuevo.

## 4. Homofobia. Homofobia ikastetxeetan.

- Homofobia. Definizioa.
- Detektatzeko beharra

- **Maiatzak 17. Homofobiaren aurkako nazioarteko eguna.**  
**Esku-hartze bi.**

**5. Zenbait eskuartze.**

- **Aurrea hartzea. Hitz egin Dezagun Homosexualitateaz (Donostia eta Gipuzkoa aldeko programa iraunkorra).**
- **Arazo zehatzak topatzen ditugunean. Langile ikastola kasua.**
- **Epaitegira ailegatu zen kasu bat.**

**6. Normalizazioa jorratuz, homosexualak eta lesbianak historian zehar. 31 pertsonaia.**

## **1. Gizaki guztiak heterosexualak garelako aurreiritzia.**

Azken urte hauetan, homosexualitatearekiko jarrerak aldaketa nabarmena izan dute; duela gutxi arte, gai honetaz hitz egiten genuenean, gehiago baten ahotatik irainak besterik ez baitziren ateratzen.

Egun, horrela ez bada ere, jende gehienak homosexualak, zein lesbianak errespetagarriak garelako iritzia entzungo ditugu, beti ere, hirugarren pertsona erabiliz, eta aurrean dauden guztiak heterosexualtzat harturik.

Gaur egun, haurren esperoan emakume bat dagoela, jaioko den haurra heterosexuala izango dela guztien buruan dago; eta inork ez du pentsatu ere egiten homosexual edo lesbiana izan litekeenik. Beraz, jaio aurretik, denok heterosexualak izan behar dutelako aurriritziak markatu egiten gaitu.

Gai honen inguruan aldaketa nabarmena izan da azkeneko urteetan, baina aldaketa ez da sakona izan. Hots, gay eta lesbianen kontrako bazterkeriarekin amaitzeko egin beharreko ibilbidea hasi dugu; baina oraindik ere, ibilbide horren bukaera, urrun baino urrunago ikusten da.

Horrek guztiak ez du norberak daukan sexu - joeran eragozpenik izaten, aldaezina baita ; bai, berriz, norberak besten gizakiekiko daukan harremanetan. Hots, gizarterekiko harremanean izango da eragozpena.

Duela gutxi arte, gurpil zoro batean sartuta egon gara, halabeharrez. Alde batetik, lesbianak eta homosexualak isilik egon gara, eta bestetik, gizarteak homosexualitatea zein homosexualak ez ditu ezagutu; beraz, ezezagunak izan ditu.

Homosexualen isiltasun edo ezkutitze hori ez da berezkoa, gizarteak berak ezartzen zien "Isiltasunaren tirania " delakoaren ondorioa baizik.

➤ **Homosexualak beharturik nortzuk diren esatera**

Beraz, arestian aipaturiko ibilbidean aurrera egiteko, horri amaiera eman behar diogu. Hitz egiten dugunean, gure aurrean daudenen artean gay edo lesbianaren bat egon daitekeelako kontzientzia landu eta hartu behar dugu; bestela, gurpil zoro hori mantenduko dugu.

▪ **Aurrekoaren zergatia.**

Homosexualok eta lesbianok ez dugu besteekiko bereizten gaitun ezaugarririk.

Aurreiritziak dio lesbiana guztiek gizon-itxura dutela; berriz, homosexualek, emakumezkoenena; bestela esanda, lesbianek eta homosexualek "luma " dugula . Batzuetan egia da. Hala ere, lesbiana eta homosexual batzuk "luma " dute, baina ez guztiek; ez esateagatik ere, "luma " dukaten batzuk heterosexual hutsak direla.

Aurreko guztiak, homosexual eta lesbiana gizataldeari, beste inongo taldeari ez bezala, ezaugarri berezi bat ematen dio: Ikusezinak dira.

▪ **"Armairutik at " delakoa.**

Heterosexualek ez dute beren burua izendatu behar, jotzen baita hala direla. Berriz, lesbianok eta homosexualek, beraien sexu-orientazioz ohartzean (eta onartzean, noski), plazaratu behar dute. Agerraldi horri, ez ezkutatzeari, esaten diogu armairutik at irten direla.

➤ **Sexu-orientazio guztien definizioaren beharra.**

Gehienetan, ikasleei sexu-afektibitateaz hitz egiten bazaie, gizaki guztien harreman guztiak molde bakarrekoak izango balira bezala aurkezten zaie. Homosexualitateaz hitz egiten bazaie ere, aipamena besterik ez da egiten, eta bazter-bazterreko gai bihurtzen

dugu. Tratarera horrek, errealitate heterosexuala, sexu-errealitate bakar bihurtzen dugu, heterosexualitatea erdigune eta beste errealitatea bazter delarik. Horrek guztiak, heterosexualitatearekiko mendekotasuna sortzen du. Bata sexu-afektibitate desiragarria da; bestea, ordea, "errespetatzekoa"; alegia, ez dute begirune berbera.

Bazterkeria hau apurtzeko, sexu-orientazio guztiak berdintasunean eta parekotasunean tratatu behar dira.

- **Heterosexualitatearen definizioa**

Sexu-joera da, eta sexu berekoak ez direnak ditu gustuko; hau da: gizonak gustuko ditu emakumeak, eta emakumeak gizonak.

- **Homosexualitatearen definizioa**

Sexu-joera da, eta sexu berekoak ditu gustuko; hau da, gizonak gustuko ditu gizonak, eta emakumeak emakumeak.

- **Homosexualitatea sexuari soilik lotuta dago?**

Ez, inondik ere ez, ez bada hartzen sexualitatea norbanakoaren osotasunaren zentzu osotzat. Sentimenduei, maitasunari eta gizakiak ditugun bizipen guztiei dago lotuta.

- **18/20 urtetik aurrera agertzea?. Perretxikoak ote?**

Homosexualez hitz egiten dugunean, gizon heldu baten irudia burura ekartzen dugu. Horrek aurreiritziekin dauka lotura.

Homosexualak eta lesbianak ez dira perretxikoak bezala, alegia, gauetik egunera ez dira sortzen; horretan heterosexualen parekoak dira, eta jaio diren egunetik bere

izaera jorratzen dute. Beraz, adin guztietako homosexualak izaten dira, heterosexualak izaten diren modu berean.

Pertsona guztiek ez dute bere sexu-joera (homosexuala edo heterosexuala) identifikatzen momentu berean. Baina gehienek, nerabezaro aurretik edo nerabezaroan deskubritzen dute. Hala ere, badira beranduago definitzen direnak.

Gainera, zenbait pertsonak bi sexu-etako jendea gustuko dute; haiei bisexualak deitu ohi zaie.

### ➤ **Ikasle ikusezinak**

Ikerketa guztiek diote %4tik - %10era desira sexu bereko pertsonengan zuzentzen duela; beraz, gure ikasgeletan baditugu sexu bereko pertsonetikiko harremana izango duten gazteak –edo izaten ari dira--, batzaz beste 10.000 bat ikasle. Orain arte ez ikusiarena egin badugu ere, egon gure artean egon dira, eta egoten jarraituko dute.

Aipamen berezia merezi dute gure ikastetxetako patioek; edo desegituratuagoak diren guneez; haietan, ustezko heterosexualen ezaugarriak betetzen ez dituen gazteak, ez homosexualak soilik, beste ikaskideek eraso egiten baituzte; bereziki hor, helduen begirada beharrezkoa baino beharrekoago suertatzen da, ikasleen aurreiritzietatik erasora pasa daitezkeelako; hots, delitua gauzatzen dutelako.

Azkeneko honetaz, aurrerago hitz egingo dut.

## **2. Gay eta lesbianen eskubideak, giza eskubideak ote? Infrahistoriaren zenbait bilakaera.**

Gay eta lesbianen eskubideen aldeko horretan zalantzarik ez dugu. Hala ere, ulergaitz egiten bazaigu ere, ez da beti horrela izan.

Bere burua defenditzen hasi ziren lehenengo homosexualak esandakoari begira jarriz gero, beren burua gaixotzat jotzen zutela ohartuko gara; hori aldaezina zela ikusita, begirunea eta duintasuna eskatzen zuten. Besteen artean aitzindari handienetakoa Magnus Hirschfeld medikua izan zen, hark sortutako Sexologia Institutuko liburutegia naziek erre egin zuten, 1934ko ekainaren 30ean, Labana luzeen gauean, deritzon horretan.

Zer esanik ez, arestian esandako guztia, garai hartako aurreiritziek eragin zutela.

Aurreko garaia hurrengo honekin amaitutzat eman zen. Hau da, "American Psychiatric Association"ek onartutako lanak eta horren ondorioa helaratu zutenean : Homosexualitatea elkarrekin amerikarrak sortutako gaixotasun-zerrendatik atera egin zuen 1973an -- berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran hasi baziren ere--.

Garai hartako aktibista askoren izenak ezagunak ditugu, besteak beste hil berria den Del Martin eta haren bikotekidea, Phyllis Layton, Barbara Getting eta abar. Profesionalen aldetik Evelyn Hooker nagusitzen da. Hark 1957an, inguruko lagun homosexualak eskatuta eta haien burua aztertzeko eskainita ere, homosexualak ikertzen hasi zen: aitzindaria benetan! Jokabideak berak homosexualak, aldi berean, objektu eta subjektu, bilakatu zituen. Ez zen lehenengo aldiz, eta ez zen bakarra ere izan, homosexualok subjektu objektu jokabide hura erabiltzen genuenik. Agian horregatik, giza-talde guztiek bizipenez jositakoak badira ere, gay eta lesbianen mugimenduan agerikoa da bizipen pertsonalak eta eskubideen defentsan lotuta joan direla oso.

Hirurogei eta hirurogeita hamar hamarkadan , homosexualak ez ziren bakarrak izan bazterkeriaren kontra lan egin zutenak. Beltzak ere hor zeuden, baita emakumeak ere. Batzuek besteengandik gauza asko jaso eta ikasi zituzten; agian,



homosexualek besteak baino gehiago jaso zuten; akaso, beste taldeen aldean, mugimendu berria zelako. Bazterkeria jasaten zuten beste taldeekin komunean elementu asko ba zeukaten ere, agerikoena zen gizaki osotzat ez zirela harturik, haien giza-eskubideak ez zituztela errespetatzen; beraz, beltzen eta emakumeen kontrako erasoak bezala, homosexualen kontrako erasoak giza-eskubideen kontrakoak dira. Horretxetik, ideia hartatik, hasi zen abiapuntu berria, egungo egoerara ekarri gaituena.

### ➤ **Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala.**

Aurrekoarekin lotuta, bakar-bakarrik esan, homosexualitatea ezin dela ustezko gaitzat hartu, sexu-orientazioa norberaren izatearekin erabat uztartuta baitago. Esan bezala, pertsona homosexualen eskubideak zein erasoak giza eskubideak eta giza eskubideen erasoak dira, eta hau oso kontuan izan behar dugu.

Giza eskubideen aldarrikapena 1948an sortu eta sinatutako ituna izanik, ez da harrizkeoa homosexuali buruzko ageriko aipamenik egin ez izana; beraz, idatzi hartan giza-eskubide orokorrari heldu behar diogu.

Lehenengo eta bigarren atalean horrela dio:

1. atala:

**Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela;** eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. atala:

Gizaki orori dagozkio aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko honako arrazoi hauengatik: azal-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo **beste inolako gorabehera batzuk.**

Egungo egoerak eskatzen ditu berariazko aipamenak eta esan behar da bide hura hasita dela.

Duela ezer gutxi NBEko asanbladako gertaera adierazgarria izan da han bozkatu baita homosexualitatearen despenalizazioa, eta horretarako adierazpen dokumentua aurkeztu zuten; hots, lehen aipatu bezala, taxuzko aipamena .

*"Diskriminazioaren aurkako printzipioa berresten dugu. Printzipio horrek giza eskubideak pertsona guztiei aplikatzera behartzen du, edozein sexu-orientazio edo genero-identitate dutela ere".*

*"Estatu guztiei eskatzen diegu beharrezko diren neurriak har ditzatela, bereziki legegintzakoak eta administratiboak, ziurtatzeko sexu-orientazioa edo genero-identitatea izan ez dadila, inolako egoeratan ere, zigorren oinarria izan, bereziki, exekuzio, atzipenaldi edo atxiloketan oinarri".*

Bozketan ez du aurrera egin ; baina, eztabaidatua izatea aurrera pauso handia izan da.

### ➤ **Haur eskubideen aldarrikapen unibertsala.**

Eskubidearen subjektua haurra edo gaztea –18 urtetik beherakoa- denean eskubide eta babesa handiak gomendatzen dituzte; hau da, berariazko zaintza eta babesa. Hori guztia haur eskubideen aldarrikapen unibertsalean jasota dago.

Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalean bezala, orientazioa ez da agerian gelditzen eta beste epigrafe batzuen pean irakurri behar dugu.

Hurrekin ere oraingo joera zuzentzailea da, gero eta agerikoak baitira orientazio sexualei buruzko aipamenak. Hemen adibide batzuk:

*Bereizkeriaren debekua: "Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioaren inplementazioari dagokionez, Batzordeak sexu-orientazioarenguztikako bereizkeriaren kontra umeak babestuko dituen legedia eskatzen du."*

*Erresuma Batuak (Umearen Eskubideetarako NBEko Batzordea, azken Behaketak, 2000ko urriaren 16an)*

*Nerabeen osasuna eta garapena:*

*" Gobernuek ziurtatu behar dute itun honek 18 urtetik beherakoei aitortzen dizkien eskubideak haiek erabiliko dituztela, sexu-orientazioagatiko edota neraben osasunagatiko bereizkeriarik egin gabe.*

*(2. art.), orientatze sexuala (... ..) eta nerabeen osasunaren egoera arrazoi izanik ere.( baita vih/hiesa eta osasun mentala ere)."*

*Umearen Eskubideen NBEko Batzordea, Iruzkin orokorra 4. zenb. (CRC/GC/2003/4, 2003ko uztailaren 1ean).*

### **3. Indarrean dauden legeak. Espainia Erresumako Kode Zibila. EAEko Izatezko bikoteen legea.**

Egun, homosexualen arteko harremanak arautzen dituzten legeak, heterosexualen arteko harremanak arautzen dituzten lege berberak dira; hots, legearen aurrean homosexualak zein heterosexualak trataera berbera daukate.

EAEn bikoteei arauzko izaera emateko bi bide daude; batetik, izatezko bikote eta, bestetik ezkontza zibila.

#### **➤ EAE-ko 2003ko maiatzaren 7ko izatezko bikoteak arautzeko legea.**

EAEn, izatezko bikotea, Euskal Lege Biltzar Nagusiak sortutako legeak arautzen du --EAE-ko 2003ko maiatzaren 7ko izatezko bikoteak arautzeko legea---. Indarrean jarri zen unean, Nafarrako legearekin batera, Estatu espainoleko legerik osatuena eta aurrerakoiena sexu berekoek osaturiko bikoteak, beste izatezko legeetan ez bezala, adoptatzeko eskubidea kanpo uzten ez baitzuen.

#### **➤ 2005 kode zibilaren aldaketa. Beste hiritarrekiko berdintasuna.**

Ezkontza zibila arautzeko; berriz, Espainia Erresumako Kode Zibilak arautzen du hori, ezkontzari dagozkion ataletan aldaketa batzuk egin ondoren, 2005ko ekainaren 30ean Espainiako parlamentuan bozkatu eta onartu zituztenak, hain zuzen. 2005ko uztailaren 3tik indarrean daude. P.P.-ek haren kontrako errekurtsioa Konstituzio Auzitegira eraman zuen. Oraindik auzitegi horrek ez du erantzunik eman.

Kode Zibileko artikulua asko aldatu zituzten. Aldaketa gehienetan subjektuak trukatu egiten zituzten; hots, senar-emaztea jartzen zuten tokian, orduz geroztik, ezkontideak ; aita-ama jartzearen ordean, gurasoak. Aldatu zituzten artikulua hauek dira: **44.a, 67.a, 154.a, 160.a, 175.a (adopzioa), 178.a, 637.a, 1323.a, 1344.a, 1348.a, eta 1458.a.**

Erregistro Zibilaren legeko artikulua batzuk ere egokitu egin behar zituzten (**46.a, 48.a eta 53.a**)

Aipatu lege horiek homosexualen eta lesbianon eskubideak jasotzen dituzte.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan izatezko bikoteen legeak parekatu egiten ditu ezkonduetako bikoteak eta ezkongabeak. Hala ere, EAETik kanpo, bikotekideen arteko senidetasuneko loturarik sortzen ez duen legeak Estatu mailako gorputz juridikoan diskriminaziorako bideak irekita uzten ditu.

Kode Zibilak, ordea, senidetasuna sortzen du eta horrekin batera homosexualok beste herritarrekiko berdintasuna bermatzen du ezteia bitartez.

Aurrekoa argitzeko zenbait argibide emango dit. Espainia Erresumeko gorputz juridikoa, gauza askotarako, zuzenbide erromatarrean dauka oinarria; eta haren oinarria senidetasunean; hau da, eskubide bat bermatu ahal izateko kontuan izango da honen senidetasun-gradoa. Adibidea: Herentzia bat edo oinordetza eskuratzeko banatuko lukeete senidetasun-lehenengo graduak ondorengo artean, ez baleude senidetasun-bigarrenengo graduak artean, eta horrela ondorengoak topatu arte. Beraz, ezkontzeko eskubidea indarrean jarri aurretik, homosexualek osatutako bikotekideek alarguntzean, ezin zuten bestearen ondasunak eskuratu –hilarenaren ondasunak--, bien arteko ordaindutako etxebizitza, bikotearen etxebizitza, bazen ere. Etxebizitza normalean, hilaren ondorengoek eskuratzen zuten; hots, normalean jabea hilaren ilobek, anaia-errebek edo gurasoek lortzen zuten, bizirik zirauen beste bikotekidea kale gorrian gelditu bitartean. Hala ere, dena ez da diru kontua izan, gaixotasun larri baten aurrean egiteko zaintzarekin ere arazoak izaten ziren; gaixoak ezin bazuen erabaki bere buruarekin zer egin behar zuten medikuek, gaixoarekin senidetasuna zutenen esku gelditzen zen erabakia, beste bikotekidea bazter utxita.

Kode zibilari aldaketak egin eta gero, diskriminaziorako zirrikitu bat gelditu zen legelarien deskuido; hau zen: Ezkontiteak emakumeak zirenean, ezkontzaren barnean jaiotako seme alaben

afiliazioa jaiotzean ez zuten lortzen biek, erditzen zuenak baizik. Horrek erditzen ez zuena behartu egiten zuen adoptatzeko bidea egitera. Gero, hura zuzendu zuten "laguntza bidezko ugalketaren" legearekin.

Hala ere, oraindik, Kostituzio Auzotegiak ez du eman azken hitza. Aldekoa emango ahal du!

➤ **Gerokoak. Egiteke dagoena.**

Orduz geroztik, bazterkeriaz edota diskriminazioz hitz egitean, lege-diskriminazioa Espainiako Erresuman bukatu dela jota, diskriminazioa giza-esparruan kokatu behar dugu. Zoritxarrez, oraindik ere, lana egiteko bada!

Hemendik aurrera egitekenari buruzko burutapen batzuk aipatuko dut, hezkuntzan kokaturik.

#### **4. Gazte homosexualen egoera. Zenbait ikerketa**

Duela urte batzuk ez bezala, egun, Europan eta Ipar Amerikan, homosexual gazteei buruzko ikerketak egon badaude. Haietako batzuen helburua giza talde hori aztertzea izan da. Beste kasu batzuk, berriz, helburua beste bat izanik, topatu dute haien orientazioan zegoela ikerketaren gako garrantzientarikoak, eta hari ere heldu diote.

##### **➤ Azken haietako bat Rivesek egindakoa dugu.**

Rivesek, ikerketa hasi zuenean, ikasteko zailtasunak zituzten gazteak aztergai zituen. Inoiz pentsatu ez zuena topatu zuen, hots, aztertutako taldekoaren artean gazte homosexual asko zirela. Honek guztiak gazte homosexual giza taldea eta haren ingurua aztertzerako eraman zuen.

Rivesen lana esanguratsua da hainbat arrazoiengatik; batzaz beste, hauek dira nagusiak:

- Landa- lana izugarria egin du, eta
- hiru aldiz baino gehiago berrikusi egin du. (2006ko aurkeztu zuen eta 2007ko ekainaren 30ean, 2007ko abenduaren 19an eta 2008ko otsailaren 19an berraztertu zuen)

Apaitzekoa da ere Kaliforniako Molly O'Shaughnessy soziologak zuzendutako ikerketa (agian munduan zabalena, 25.000 ikasleek parte hartu zuten).

Aurreko bien arteko emaitzak oso bat datoz.

Bataz beste hauek dira emaitzak:

- % 5-12 bere burua homosexualtzat jotzen du, edo bere orientazioarekin nahastuta dago.
- lesbiana, gay, transexuak eta bisexual (LGTB) ikasleek eskola-emaitzak baxuagoak dituzte beste gainontzeko ikasleek baino.
- Ikasle LGTBek kale gehiago egiten dute eskolan gainontzeko ikasleek baino.

- Ikasle LGTBek osasunerako arrisku gehiago dute beste gainontzeko ikasleek baino.
- Ikasle LGTBek gizarte-laguntza txikiago dute -- bakardadean eta bakarrik bizi dira haien orientazioa eta hark sortzen duen gatazka— gainontzeko ikasleek baino.
- Ikasle LGTBek haien buruarekiko herstura eta liskar handiagoak dituzte beste gainontzeko ikasleek baino.
- Ikasle LGTBek bere buruaz beste egiten dute gainontzeko ikasleek baino gehiago, hiru bide gehiago, hain zuzen. Kopuru hartatik %30 saiatu egiten dira, hiruz pa lau aldiz, berriro egiten.

Aipatuko ditugun hurrengo ikerketak homosexualitatearekiko gazteen jarrera aztergai dute, beraz, hura da helburu nagusia eta bakarra. Hirurak Pichardok eta Molinuevok zuzenduak dira.

➤ **Coslada eta San Bartolome de Tirajana-ko ikerketak.**

Bietan eskola- populazio osoak (D.B.H. eta 2. Hezkuntzan egin) ikertzen dituzte; horretan datza bere balioa, ez baitu lagina aurre-hautatua izan.

➤ **Azkenik, hurbilena Donostian egindakoa dugu.**

2007-2008 ikasturtean egin, eta haren berri duela egun gutxi jaso dugu. 323 ikasle izan ziren aztertuak. Egun landa-lana egiten jarraitzen dute, eta asmoa urtero emaitzen balorazioa ematea da, hurrengo urteetan, behintzat.

Estatu espainiarrean egindako ikerketetan ondorioak oso antzekoak dira. Esan daiteke haiek artean alde handirik ez dagoela.



Donostian —323ko lagina-- egindako ikerketako zenbait datu interesgarri aipatuko ditut:

- **% 5-12 homosexualizat** bere burua jotzen du edo bere orientazioarekin nahastuta dago (**datu hau beti berdina ematen dute ikerketa guztiek**).
- Gazte homosexuali egindako **irainen lekukoak 239** ikasleak izan dira (**%73,99**).
- Gazte homosexuali egindako **mehatxuen lekukoak 207** ikasleak izan dira.
- Gazte homosexual **jipoien lekukoak 169** ikasleak izan dira ( **%52,32**), **jipoiak jaso dutelako salatu duten** ikasleak soilik, berriz **4(%1,24)**.
- Eskolako gaietan ez dute homosexualen erreferentziarik, hiruz palau kenduta..
- Erreferente nagusiak pertsonaia mediatikoak dira eta ez beti erreferente garbiak edo sanoak.
- Bi mutil gazte musuka ikusteak nazka ematen die ikasleen %18ri, bi neska gazte musuka ikusteak, berriz, nazka ematen die ikasleen % 4,9ri.
- Irakasle homosexuala dela jakin ez gero iseka egiteko arrazoitzat jotzen du % 8,7ren batek.
- Ikasleen usteetan homosexual gazteek beste gainerakoek baino tratatu txarragoa jasotzen dute ikastetxeetan. (**%82,3** ).
- Familiak homosexualak direla jakingo balu familiaren laguntza jasoko lukeeten galderaren aurrean, 323etatik 129 soilik baietz esan dute.

Beraz, egungo homosexual-gaztearen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Bere homosexualitatea barkadadean bizitzen jarraitzen duela.

- Ez eskolan, ez beste inguruetan ere, ez du ageriko erreferenterik.
- Laguntza jasotzeko konfiantzarik ez du, ez familian, ez ikastetxean ere.
- Ikasle ikusezinak izaten jarraitzen du.

Aurreko ikerketek egoera kezkarria erakusten digu, eta eskuartze serio eta sakonak behar-beharrezko direla ere; homosexual gazteei gaineko ikasleei ematen diegun tratu egokia eman ahal izateko.

## 5. Homofobia eta homofobia ikastetxeetan.

Homofobiari aurre egitea ez da batere erraza, zeharkako lan guztiak errazak ez diren bezala.

Hala ere, dena egitea eta ezer ez egitearen tartekoa badugu: has gaitezen gauza xeheekin, eta gero gerokoa; hau da: ur handitan sartu aurretik, gauza errazagoei heldu behar diegu, eta horrela ibilbide horretan nola jarraitu ikusiko dugu.

Momentu honetan, lana ekiteko DBH-n hasita, nik lehentasunak homosexual gazteek etapa horretan jasaten dituzten eraso larriak eteteko beharra jartzen ditut, hots, homofobia saihestea.

Lehen pausua erasoak detektatzea izango da. Horretarako garrantzitsua da oso homofobia zer den jakitea. Hona hemen,

### ➤ **Homofobiaren definizioa:**

Homofobia bazterkeria irrazionala da, alegia, homosexualen aurkako gorrotoa, beldur edo aurreritzia. Hala ere homosexualak ez dira bakarrak homofobia jasaten dutenak.

#### **Hauek paraitzen dute bereziki:**

- Emakume eta gizon homosexualak.
- Homosexualekin batera, aniztasun afektibo-sexuala osatzen duten beste gutxiengoak: bisexualak eta transexualak (horrelakoetan **transfobia** eta **bifobiaz** ere hitz egiten dugu).
- Norberaren aurkako sexuarekin erlazionatu ohi diren jarrerak edo/eta ohiturak dituzten pertsonak, adibidez, metrosexualak eta "luma" dutenak.

Homofobia zer den jakin eta gero, eraso homofoboak detektatu beharko ditugu, ez ikusiarena egiteko jokabidea aldatu behar dugu. Zintzoki onartu behar dugu erasoak eguneroko

errealitate hutsa diren eta jarrera okerrak ikusi ditugula; orain arte garrantzirik eman ez badiogu ere, ikusi, ikusi egin dugu. Hala ere, beti horrela izan delako ohituratzat hartu dugu, hura zuzendu gabe. Eta benetan ez bagara konturatu, hementxe ditugu Donostian egindako inkesteen emaitza hauek, ikasleek berek esanda:

- Gazte homosexuali egindako **irainen lekukoak 239** ikasle izan dira (**%73,9**). Gazte homosexuali egindako **mehatxuen lekuko 207** ikasleak izan dira.
- Gazte homosexual **jipoiak 169** ikasleak izan dira ( **%52,32**).
- **%1,24** ikaslek jipoiak jaso dutela salatu dute.

Badugu lana, bada! Hala ere, Hezkuntza Saileko arduradunek, zuei irakasle, ez dizuete inolako formakuntzarik eman. Askotan, giza-balioak lantzea lelo bat besterik ez da. Goazen ikustera zer egin daitekeen gai honekin.

### ➤ **MAIATZAK 17. homofobia kontrako nazio arteko eguna.**

Duela 5 bat urte hasi eta egun jarraitzen dugu egun esanguratsu hau antolatzen. Ikastetxeetan ez ezik toki guztietan ere lantzeko proposamena da hau. Pariseko 2.hezkuntzako irakasle batek Sarean plazaratu zuen, eta beherehala askok bat egin genuen idea honekin.

Hona hemen, maiatzaren 17an, homofobiaren kontra lan egiteko zenbait proposamen:

- "Homosexualitatea ez da gaixotasuna, homofobia bai" DBHko 1eta 2. mailarako esku-hartzea.
- "Homosexualitatea ez da delitua, homofobia bai" D.B.H.ko 3 eta 4. mailarako esku-hartzea.

## **“HOMOSEXUALITATEA EZ DA GAIXOTASUNA, HOMOFOBIA BAI” D.B.H.ko 1. eta 2. mailako Esku hartzea:**

### **--IKASLEENTZAKO PROPOSAMENA--**

#### **I. Sarrera:**

### **ZERGATIK ANTOLATZEN DUGU HOMOFIARIEN AURKAKO EGUNA MAIATZAREN 17AN?**

Homofobia eta transfobiaren kontrako eguna maiatzaren 17an antolatzen da, izan ere 1990eko egun jakin hartan, Osasunaren Munduko Erakundeak (OMEk) gaixotasunen zerrendatik kendu zuen.

Erabaki horrek helburu bat baino gehiago du; batetik, homofobiaren kontrako sentsibilizazioa lortzea, eta bestetik, Nazio Batuen Erakundeak (NBEk) homofobiaren kontrako egunari onospena ematea. Eskaera honekin lgtbko kolektiboek<sup>1</sup> ez ezik, erakunde publiko batzuek ere bat egiten dute.

Oraindik, sexu-joera eta genero-identitatea<sup>2</sup> delako despenalizazioa NBEk onartu ez badu ere, aurrerapausoak eman ditu, besteak beste duela hilabete batzuk, Biltzar Orokorrean, homosexualitatea ez zigortzeko proposamena eztabaidatu zuen, % 35-eko onarpena izan zuen.

Aurrerapausoa bai, baina homofobiaren kontra lana egiteko badugu! Egoera aldatzea denon esku dago, baita zeurean ere.

---

<sup>1</sup> Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Kolektiboek

<sup>2</sup> *Genero-identitatea*: pertsona batek bere burua zein generoarekin identifikatzen duen (gizona edo emakumetzat jotzen du bere burua, bere sexu biologikoa kontrakoa izanda ere).

## Homofobiaren definizioa:

Homofobia bazterkeria irrazionala da, alegia, homosexualen aurkako gorrotoa, beldur edo aurreritzia. Hala ere homosexualak ez dira bakarrak homofobia jasaten dutenak.

Hauek paraitzen dute bereziki:

- Emakume eta gizon homosexualak.
- Homosexualekin batera, aniztasun afektibo-sexuala osatzen duten beste gutxiengoak: bisexualak eta transexualak (horrelakoetan **transfobia** eta **bifobiaz** ere hitz egiten dugu).
- Norberaren aurkako sexuarekin erlazionatu ohi diren jarrerak edo/eta ohiturak dituzten pertsonak, adibidez, metrosexualak eta "luma" dutenak.

- **Irakaslearentzako oharra:** Lehenengo paragrafoa ikasleei irakurri. Homofobia definizioa irakurri aurretik, gomendioa da ikasleekin osatzen saiatzea. Atala 10-15 minutuan egingo dute.

## II. Semaforo mapa.

Munduko mapa mutu batean ikasleek margotuko dituzte homosexualikiko zer jarrera duten hainbat herrialdek:

Berdez >>>> homosexualek beste herritarrekiko berdintasuna lortu duten herrialdeak. (Belgika, Espainia, Hegoafrika, Herbeherak, Kanada, Norvegia)

Gorritz >>>> homosexualei heriotza-zigorra ezartzen dieten herrialdeak. (Arabiar Emirerri Batuak, Iran, Mauritania, Saudi Arabia, Sudan eta Yemen)

Laranja >>>> homosexualekiko bestelako jarrerak dituzten herrialdeak (batzuetan lege malguak, besteetan bortitzagoak).



- **Irakaslearentzako oharra:** mapa osatua erantsita daukazu, ea, zein den egungo egoera zein da jabetzeko. Herrialdeen izenak eman haiek bilatzeko, edo bestela non dauden esan eta haiek margo ditzatela. Lana egingo dute 10-12 minutuan.



### **III. Ikastetxean ematen diren jokabide homofoboak. Estatu mailan legeak berdindu bagaitu ere, egunerotasunean, homofobia gure artean dago.**

- Lauko taldeak osatu, eta hiru jokabide homofobo (arinak, ez oso bortitzak) emango dizkiegu talde bakoitzari. Bestetik hiru jokabide eskatuko diegu ere talde bakoitzari.

Gure ustez  
homosexuala den  
ikaskidearen  
aurrean estaltzeko  
itxurak egin ditugu

Kuardenoan MARIKOIA

e-mailez "luma" daukan  
kideari gonbitea bidali  
diogu; hitzorduan beste  
inor ez agertzeko  
adostu dugu.



- Bateratze-lana. ikasleek sortutako jokabideak zerrendatu; eta hasteko, gela osoak taldeka eskeinitakoak, eta haiek sortutakoak jerarkizatu beharko ditugu arbelean. Gero, hautatu gehien errepikatzen direnak.



**Irakaslentsako oharra:** Taldeko lana eta bateratze lana egingo dute 20 minutuan.

**IV. Txartelak.** Aukeratutako jokabideekin txartel batzuk egingo dituzte, eta ikastetxean jarriko dituzte; bereziki, patioetan, korridoreetan eta aldageletan.

**ADI EGON! ADI EGON! ADI EGON! ADI EGON! A**

**Jokabide hau**


“.....  
.....  
.....”

**HOMOFOBOA DA, ETA MIN EMATEN DU!!!!**

**Irakaslentsako oharra:** Txartelak egin eta itsatziko dute 15-20 minutuan.

# Derechos LGBTI en el mundo

ILGA, una federación mundial que trabaja por los derechos de las personas gays, lesbianas, bisexuales, transexuales e intersexuales desde 1978



Estas leyes se aplican a lesbianas, gays y bisexuales y a actividades y relaciones entre personas del mismo sexo. En algunas ocasiones se aplican también a personas trans e intersexuales. Proyecto de mapa mundial, coordinado por Juris Lavrikovs (ILGA-Europa) y Stephen Barris (ILGA). Este mapa fue originalmente diseñado por Philippe Mouche para la revista Têtu e ILGA, ajustes para ILGA-Europe Newsletter por parte de Silja Pogule. Los datos recogidos en este mapa se basan en el Informe "Homofobia de Estado: un repaso a las legislaciones mundiales que prohíben las relaciones sexuales consentidas entre adultos del mismo sexo", elaborado para ILGA por Daniel Ottosson (disponible en [www.ilga.org](http://www.ilga.org) en inglés, español, portugués y francés).

**“HOMOSEXUALITATEA EZ DA DELITUA, HOMOFOBIA BAI”  
D.B.H.ko 3. eta 4. mailako Esku hartzea:**

--ikasleentzakoo proposamena--

**I. Sarrera:**

**ZERGATIK ANTOLATZEN DUGU HOMOFIAREN  
AURKAKO EGUNA MAIATZAREN 17AN?**

Homofobia eta transfobiaren kontrako eguna maiatzaren 17an ospatzen da, izan ere 1990eko egun jakin horretan, Osasunaren Munduko Erakundeak (OMEk) gaixotasunen zerrendatik kendu zuen.

Erabakia horrek helburu bat baino gehiago du; batetik, homofobiaren kontrako sentsibilizazioa lortzea, eta bestetik, Nazio Batuen Erakundeak (NBEk) homofobiaren kontrako egunari onespina ematea. Eskaera honekin lgtbko kolektiboek<sup>3</sup> ez ezik, erakunde publiko batzuek ere bat egiten dute.

Oraindik, sexu-joera eta genero-identitatea<sup>4</sup> delako diskriminazioa NBEk onartu ez badu ere, aurrerapausoak eman ditu, besteak beste duela hilabete batzuk, Biltzar Orokorrean, homosexualitatea ez zigortzeko proposamena eztabaidatu zuen, % 35eko onarpena izan zuen.

Aurrerapausoa bai, baina homofobiaren kontra lana egiteko badugu! Egoera aldatzea denon esku dago, baita zeurean ere.

---

<sup>3</sup> Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Kolektiboek

<sup>4</sup> *Genero-identitatea*: pertsona batek bere burua zein generoarekin identifikatzen duen (gizona edo emakumetzat jotzen du bere burua, bere sexu biologikoa kontrakoa izanda ere).

## HOMOFOBIAREN DEFINIZIOA: Ikasleek egin behar dute.

<p><b>Homofobia hau da:</b> .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
---

### □ Irakaslearentzako oharra:

- Oso garrantzitsua da gaia testuinguruan kokatzea, horretarako ikasleekin sarrera ahoz gora irakurriko dugu.
- Homofobiaren definizioa osatzeko ondorengo urratsak proposatzen ditugu:
  1. Ikasleei haiek beren definizioa osatzeko denbora eman (gutxienez 5 min.)
  2. Saiatu komunean definizio bateratu bat osatzen (adibidez, ozenki ikasleen zenbait definizio irakurri, eta arbelean laburbilduz. Beste 10 min.)
  3. Aurreko eskuartzean duzun definizioa ikasleei banatu (arbelean idatzita, kopiak eginda, edo haiekin irakurrita).

## III. Istorioa.

Mikelek 15 urte ditu. Institutoan pozik zegoen. Orain; berriz, ez dago gustura, gelakide batek, Koldok, irainak idatzi baitizkio mahaian. Idatzitako irainak marikoa, maritxua eta era horretakoak dira.

Mikelen lagunak onenak, Andoni eta Joseba dira, eta azken aldian harengandik urrundu dira, besteek haiek ere marikoiak direla pentsatuko dutelako beldurrez. Amaia eta Miren Koldok egindakoarekin oso haserre daude, eta pentsatzen ari dira Xabier tutoreari esatea. Mikel gaizki pasatzen ari da, eta etxean ere, gurasoek, Arratek eta Anttonek, arraro dagoela igarri diote.

Gaur irainak ozen bota dizkio Koldok, eta ikas-gelako mutil gehiengoak parrez aritu dira, baita Andoni eta Joseba ere. Institutoko atezainak ere, Ikerrek, irainak eta barrek entzun ditu.

**Istoriaren pertsonaia bakoitzari bere rola eman:**

erosatua		
erasotzailea		
INGURUA	ikasleak	
	Irakasleak eta atezaina	
	gurasoak	

**Irakasleentzako oharrak:** Ikasleek, banaka, istorioa irakurri (**5 minutuan**) eta pertsonai bakoitzari dagokion rola identifikatu behar dute (**20 minutuan**). Pertsonaiak eta rolak hauek dira:

**Erasotua:** *Mikel*

**Erasotzailea:** *Koldo*

**Ingurua:** **Ikasleak:** *Andoni, Joseba, Amaia eta Miren*

**Irakasleak eta langileak:** *Xabier eta Iker*

**Gurasoak:** *Arrate eta Antton*

## **II. Galderak. Konponbide bila.**

- 1. Nor da indartsuena?**
- 2. Nork osatzen du gehiengoa?**
- 3. Noren esku dago konponbidea?**
- 4. Mikelen laguna bazina zer egingo zenuke?**

**Irakasleentzako oharrak:**

### **1. NOR DA INDARTSUAGOA?**

Ikasleek erasotzailea erantzuteko joera dute, indarra fisikoa besterik ez baitute ikusten. Indar etikoa bilatu behar dute; beraz, erantzun egokia ingurua da.

**2. NORK OSATZEN DU GEHIENGOA?**

Kopuruaren aldetik ingurukoek osatzen dute gehiengoa, eta ikasleak gehiengoaren parte sentitzea helburu dugu.

**3. NOREN ESKU DAGO KONPONBIDEA?**

Konponbidea denon esku dago.

Konponbide hauetaz hitz egin behar dute:

Erasoak salatu, jokabide homofoboaren aurrean erne egon, ezberdinen arteko elkarbizitzarako neurriak bideratu, ....

**4. MIKELEN LAGUNA BAZINA, ZER EGINGO ZENUKE?**

Erasotuak, erasotzaileak eta inguruak elkarrekin bizi behar dute eta horretarako elkarbizitza indartuko duen edozein irtenbide mintzagai egokia izango da.

## 6. Zenbait eskuartze. Aurrea hartzea. Arazo zehatzak topatzen ditugunean. Epaitegira ailegatu zen kasu bat.

Ikastetxeetan homofobiaren aurkako lanetan lugun asko ez badabiltza, aditu batzuk badaude, eta benetan lan aparta egiten ari dira. Haiek egindako 3 esku-hartzeren berri emango dizuet, asko sakondu gabe. Hala ere, norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero, azken orrian zenbait helbide, helbide elektronikoko, telefono eta web orri dauzkazue.

- **Aurrea hartzea. Hitz egin Dezagun Homosexualitateaz (H.D.H).** (Donostia eta Gipuzkoa aldeko programa iraunkorra).

Urtero eskeintzen diete Gipuzkoako ikastetxe guztiei – udalen kontura--, eta dagoeneko 5 urte martxan dagoela. Programazioak **helburu orokorra** du gazteek homosexualitateari buruz hitzegiteko gunea sortzea, eta oinarria du begirunean zein aniztasunean.

HDHko erronka bi ditu. Batetik, homosexualitatearen normalkuntza, homosexualitatea beste errealitate bat bezala erakustea -besteak baino hobea ez, ezta txarragoa ere--; bestetik, homosexual gaztea ez ikusteko joera ezabatzea.

### **Berriazko helburuak** hauek dira:

- Ikasgelan homosexualitatea ikusgai bihurtzea.
- Gaia desmitifikatzea.
- Gazteei erreferente homosexualak ematea.
- Hezitzaileak konturatzea haien parte-hartzearen garrantziaz.
- Aholkatzea (gazteek eskatzen dutenean).

- Ikastetxeetan **hitzaldiak** (bi ordukoak) ematen dituzte, eta **haien eskema** hau da:

\* Hitzaldia aurkeztu eta honek dituen helburuak azaltzen dituzte. ( ikasleek diskurtso bat espero ez izateko).

\*Gazteei laguntza eta parte-hartzea eskatu egiten diete.

- Konzeptu batzuk azaltzen dituzte (Power Point baliatuz). Hauek dira:

*Sexu-orientazioa:* Nor dira homosexualak eta heterosexualak?

*Sexu-identidadea:* nor dira transexualak?

*Aurreko bien artean ezberdintasuna.*

*Travestiak, metrosexualak....*

- *Ideien zaparrada: Hitz gakoa "HOMOSEXUALITATEA".  
Hitza eman eta gero*

◇ Burura etortzen zaie lehenengo ideak idatzi (3 minutuan).

◇ Lanak bateratzea.

◇ Informazioa ematen diete Ikasleek emateko erantzunen bidez, beren ondorioetara iristea haien galderez baliaturik, ea, haiek beraiek ondoriei heltzen Informazioa ematen diete Informazioa ematen diete dieten.

- Hezitzaileentzako topaketak antolatzen dira, urtean behin. Gaiak eta txostengileak ezberdinak izaten dira.(topaketako txostenak ere ezagutzea badago).

- Ikerketa lana ere egiten dute. (Donostiko ikerketako landa-lana haiek egin dute).



➤ **Arazoak topatzen ditugunean. Langile Ikastolako adibidea.**

2008-09ko ikasturtean, ikasturte honetan alegia, Langile ikastolako irakasleak, zenbait ikasleek besteekiko zuten jarrera ikusita, kezkatu ziren, eta H.D.H.-programa aurrera eramaten duen talderari laguntza eskatu zioten. Aipatu jarrerak, zer jarrera mota ziren?

Kontuan harturik irakasle haiek laguntza eske zebiltzatela pentsatzekoa da jarrera larriak gertatzen ari zirela ikastola hartan. Egoera hau zen: "luma" zeukaten ikasle batzuk beste zenbait ikasleek isekak eta probokazioak egiten zizkieten. Hori besterik ez zen, baino aski ere zen kezkatzeko.

Hala ere, ondo kokatzeko, hau argitu behar dut: egoera larri hori ikasteetxe gehienetan ematen dela, eta hori dela eta, egoera hura zenbaitentzat arrunta baino arruntagoa dela pentsata ez lukeete eskuartzerik egingo. Non zetzan orduan aldea? Irakasle goaren sentsibilitatean zegoen; ez ikusiarena egiteko prest ez zeuden profesionalak zirela. Beraz, berriro esango dut normaltzat hartzen ditugun zenbait egoera "normalak" ez ezik larriak ere badirela, eta esku-hartzea justifikatua baino justifikatuago dagoela.

Jo aurretik beste azalpen bat: isekak eta irainak jasaten ari ziren ikasleek guraso batzuk ere kezkatuak zeuden. Horren atzean beste hau zegoen; erasotuek, ohiko ez den bezala, gurasoei kontatu zieten, eta haiek seme-alabentzako laguntza eta babesa eskatu zuten, eta gazte haien bakardadea apurtu zuten.

**Hemen esku-hartze honen bilakaera:**

Egoera aztertu eta gero inguruan zeuden giza-talde guztiekin lan egitea erabaki zuten, hau da, gurasoekin, irakasleekin eta ikasleekin. Beraz, hiru arlo ezberdin haietan jardungo zutelako erabakia hartu zuten, partaide guztiak proposamenarekin bat egin baitzuten.

Ez luzatzearren eskemen bidez azalduko dut.

■ **HELBURU OROKORRAK HAUEK DIRA:**

- Jokabide homofoboak saihestea ikastetxeko ikasleen artetik.
- Jardunbideak markatzea ikastetxean jazarpen homofobikotik sumatzeko.
- Irakasleei dauden lanabesen berri ematea.

□ **GURASOEI BEGIRA. HELBURUAK hauek dira:**

- Nerabezaroan homosexualitateak duen presentzia ezagutzea.
- Nerabeen garapen afektibo-sexualean gurasoek duten zeregina aurkitzea.
- Homosexualitateaz era irekiaz eta lasaitasunez hitz egitea.

□ **IRAKASLEEI BEGIRA. HELBURUAK ondokoak dira:**

- 
- Gelako aniztasun afektibo-sexualari buruzko zalantzak argitzea.
- Ikastetxeetan sexu-joeraren gainean izandako esperientziei buruzko informazioa biltzea.
- Tutore gisa jokabide ereduak ezartzea LGBT ikasleei begira.
- LGBT ikasleekiko komunikazio lanabesak sortzea.

□ **IKASLEEN arloan, HELBURUAK ondokoak dira:**

- Homosexualitatearekin zerikusia duten gutxiespenezko hitz guztiak analizatzea.
- Homosexuala, heterosexuala eta bisexuala zer den jakinaraztea.
- Bullying homofobikoa zer den jakinaraztea.
- Eraso homofoboak gertatuz gero, irtenbideak bilatzea.
- Hezkuntza komunitateko kide sentitzea.

Talde bakoitzarekin hainbat jarduera lantzen -- talde bakoitzeko heburuekin bat—aritu eta gero, baliabide batzuk martxan jarri dira. Horren berri ez dut emango, oraindik aztertuak eta berrikusiak ez dituztelako. Esku-hartze hau oraindik irekita dago.

➤ **Epaitegira ailegatu zen kasu bat.**

Gaia oso delikatua den arren – erasotzaile eta erasotuen adina ere kontuan izanda--, azaletik zenbait azalpen ematea interesgarri iruditzen zait; batez ere, homofobia homosexualitatea eta homosexualen ezezagutzan oinarria dela kontuan hartuz, esku-hartze honen helburua **erasotzailea hazitzea** delako.

**Egoeraren deskribapena:**

Nerabe batek azken urteetan era askotako erasoak pairatu ditu. Erasotzaileak ez dira soilik bere ikaskide batzuk izan, beste inguruko bi ikastetxeetako ikasle batzuk ere erasoetan parte hartu dute.

Hori guztia, nerabeak bakardadean bizi du inori esan gabe, eta inguruko inork bere aldeko defentsarik egin gabe.

Egoera jakinarazten da, grabazio molde batez irabiliz, SMSez; grabazio bat herrian –herri ertaina— zabaldu egiten dutenean. Grabazio moldean azaltzen dira gizon bat eta emakume bat

lizunkerietan. SMS-ko emakumearen aurpegia trukatu dute eta nerabe erasotuaren aurpegia agertzen da.

Erasotuaren gurasoak salaketa jartzen dute egoera horri amaiera emateko.

Epaitegietan erasotzailearen eta erasotuaren adina kontuan harturik, bitartekaritza eskeintzen dute. Eskeinitakoa bi aldeek onartu egiten dute. Erasotzaileak erasotuari barkamena eskatzen dio, erasotua baietz dio, baldin eta baldintza batzuk betetzen baditu; hauek dira: bere kontra ez ezik, inoren kontra ere berriro erasoak ez egiteko laguntza eskatu behar duela, eta horretarako baliabideak martxan jartzea eskatzen dio gizarte-langileari.

Erasotuaren gurasoek ez diote heldu nahi semea homosexual den gertakizunari, eta semeak erasotzaileari eskatzen dionarekin bukatutzat ematen dute gaia. Hala ere, nerabe erasotua psikologo baten laguntza eskatzen du, eta ematen zaio.

Epaitegiko giza-langilea gay, lesbiana eta haien familientzako laguntza zerbitzu bulego bateko arduradunari laguntza eskatzen dio, eta bien artean esku hartzea adostaten dute. Hitzordua ematen zaio erasotzaileari, eta gurasoekin agertzen da; haiei guztiei programaren berri ematen zaie. Hona hemen eskeinitako programazioa:

- **Gogoetarako atala.** Helburua dauka sentiraztea zer sentitzen duen nerabe batek eskolan. Horretarako baliabide hauek erabiltzen ditu:
  - *TREBOR*: Laburmetraia da eta eskolan nerabe baten bizipenak azaltzen ditu.
  - *Ba al zenekien?*: Aurretik egokitua, Pichardok egindako ikerketako emaitzak jasotzen dituen txostena.
  - *SIGUR ROS*: musika bideoa.
  - *Beste bideo bat*. Homosexual gazte batzuek beren bizipenak kontatzen dituzte.
  - Nazioarteko homosexualitatearen egoera jakinarazten zaio, eta momentu hartan egunkarrietan agertzen ari den berri ikaragarria ere – Iranen bi homosexual gazte urkatu dituztela--.

- **Homosexual gazte talde batekin jarduna.** – gazte haiek ez zekiten hura erasotzailea zenik, eta nor zen ere—  
Gazte haiek normalean gelditzen dira zenbait ekitaldi egiteko, eta esan dezakegu beren izaera onartu o onartzeko prozesoa daudela.

Zerbitzuko arduradunak hautatu zuen egunean zineforuma zeukaten, eta nerabeak pasa zuen arratsaldea beste gazteekin pelikula ikusten, palamitak jaten, eta ezagutzen errealitate jakin hori.

- **Programa-amaierako idazlana.**  
Nerabeari eskatzen zaio bizipenari buruzko idazlan bat eskatzen zaio

- **Ebaluazioa:** (bi ardatz ditu:)
  - Gogoetako mahia eta
  - Homosexualitatearen gaineko argudio koherentzia.

Bukatu aurretik, beharrak izanez gero, berriro laguntza eskatu dezakeela gogorazten zaio. Orduz geroztik, dei bat egin du gure gazteakeskerrak emateko, eta ezagutatuko lagunez galdetzeko.

Atal honetan azaldutako guztia homofobia iceberg batekin konparatuz gero, icebergaren tontorra besterik ez da.

Hala ere, esanguratsua da, arazoak agertzen direnean, laguntza hezkuntza sistematik kanpo bilatzea, Hezkuntza Saileko Web orrian *Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarra gertatzen direnean jarduteko gida* zintzilik egonda ere. Hor badago ere Kurrikuluma, eta sexu-orientazioari buruzko aipamena besterik ez da han agertzen. Ikastetxeko pedagogia-proiektuan aipamenik ere ez da egiten. Haietan daukagu hau guztia hedatzeko, eta horri heldu gabe nekez arituko gara baliabideen bila.

Egiteke dago irakasle homosexual ere pairatzen dutena ere, homosexual gazteek hain beharrezko duten erreferente bilakatzeko gainditu behar dutena. Ezin dugu pentsatu bakarrik haien utzikerian, edota haien barneko homofobian datzala beren jokabidea. Gai hura ere konplexua bada ere

aztertzeko dugu, baina nire ustez bi hankako eserlekua da, eta bi hankei heldu beharko genieke. Hala ere, esan bezala egiteke, egiteke....

## **7. Normalizazioa jorratuz, homosexualak eta lesbianak historian zehar. 31 pertsonaia.**

Homosexualitatearen normalizazioa egunerokotasunean garatu behar da, hau da, arlo guztietako bazterrak utzi behar ditu beste sexu-orientazioekin batera gunea izanik.

Gizateriaren historian zehar, mende askotan, homosexualitatea baztertuta izan da. Garaia da horri ere heltzeko. Gehienetan pertsonaia homosexualak ezkutatuta egon dira. Normalizazioa ondo jorratzeko pertsonaia haiek ere eskuratu behar ditugu. Hona hemen zenbait pertsonaia homosexual eredu gisa:

### **ALAN TURING (1912-1954)**

Matematikari ingelesa. Konputazioaren aitzindaria izan zen.

II. Mundu Gerran aliatuen taldean lan egin zuen. Nazien igarluzinak zituen "enigma makina" deskodeatu zituen.

Lizunkeria larriaz eta "sexu-perbertsioaz" akusatu eta kondenatu zuten, homosexuala izateagatik. Hormona tratamendua jasatera zigortu zuten. Horrek guztiak, erabateko degradazio fisikora eta emoziozkora eraman zuen; azkenik, bere buruaz beste egin zuen, zianuroz pozoitutako sagar bat janda.

Apple etxearen kolorezko ikurrak gertaera hau gogoratzen du.

### **ALEJANDRO AMENÁBAR (1972- ...)**

Zuzendari espainarra. Txilen jaio zen. Oscar sari bat irabazi zuen.

Homosexual izateari buruz egindako deklarazio publikoetan horrela dio: "Beti saiatu izan naiz kontsekuente izaten, eta gaia normaltasun osoz, eta, era berean diskrezio handiz eramaten. Beldurtu egiten nau jendea nire bizitza pribatuan sar daitekeela pentsatzeak, baina beste alde batetik, ez zait axola gay naizela

aitortzea. nire aitorenak homosexualitatea normalizatzeko edo, oraindik, armairutik atera ez diren pertsoneri laguntzeko balio baldin badute, ederki.”

*"Tesis", "Abre los ojos", "Los Otros" eta "Mar Adentro"* filmen zuzendari dugu.

### **ALEJANDRO MAGNO (Ka 356 – Ka 323)**

Jeneral greziarra. Mazedoniako Alejandro III.a izan zen pertsiar inperioaren menperatzailea eta antzinateko mundu greziarren bateratzailea.

Inoiz izan den buruzagi militarrik garrantzitsuenetakotzat jotzen da.

Haren maite kuttunena Hefestión izan zen, eta harekin batera bizi izan zuen abenturaz betetako bizitza. Haren heriotza zela eta, depresioak jota zebilela, dena uztear egon zen.

Hiri handiak (Egiptoko Alejandría, Hefestionen omenez) sortu zituen, eta pentsamendu eta kultura greziarrak Ekialde osoan zabaltzen zituen .

### **CARMEN BURGOS DE SEGUI, "COLOMBINE" (1867 – 1931)**

Kazetaria eta pedagogo. Egunkari bateko lehenengo emakumezko erredaktoreburua, eta espainiar estatuko lehenengo gerra-korrespontsal emakumezkoa, Marokorekiko gerran, hain zuzen.

Literatura-lan gehiena emakumezkoren askapenaren inguruan idatzi zuen. Halaber, lehenengo emakumea izan zen bere liburuetan emakumezkoaren homosexualitateari buruz liburuetan idazten.

Zirkulu Erradikal Sozialistaren Kide izan zen. Espainiar Estatuan zehar emakumezkoen askapenaren aldeko hitzaldiak eman zituen,



aipagarrienak hauexek: " *Emakumezkoaren giza eginkizuna eta* " "*Emakumezkoa Espainian* ".

Idazkietako batzuk: "*Arimaren oharra* ", "*Moldatu gabeak*" eta "*Colombineren ipuinak* ".

### **ERAUSOKO KATALINA (1592 – 1659?)**

Donostian jaio zen. "Moja alferez" izenaz ezagutzen dugu.

Orientazio eta identitate sexual hauslea duen pertsonaia da (lesbiana ala transexuala zen?).

Hamabost urte zituela, gizonezkoen arropa jantzita, komentutik eta inkisiziotik ihes egin zuen.

Amerikara abiatu zen eta han morroi eta idazkari lanak egin zituen.

Emakumeekiko jendetasunaren eta gizonekiko gogorkeriaren eredu bihurtu zen.

Heriotza-zigorra ezarri zioten eta Espainiara itzuli zen.

Aita Santuak barkamena eman zion eta baita gizonezkoen jantziak erabiltzeko eskubidea ere.

1635etik aurrera ez dugu berari buruzko berri gehiagorik.

### **CHAVELA VARGAS (1919 – ...)**

Costa Rican jaiotako emakume hau abesti mexikarren kondaira bihurtu da.

*Pontxo gorriaren Dama* da bereziki ezaguna abestiei samin latza eta handia ematen dielako.

2002.urtean Isabel Katolikoaren Gurutze Handia jaso zuen, eta, berehala *armairu gardenetik* atera zen, ez denen ahotan zegoela jakinarazteko baizik eta horretaz harro zegoela adierazteko.

Laurogei disko baino gehiago grabatu ditu eta, besteak beste, "*Macorina*" eta "*La llorona*" *aipagarrienak dira*.

Maitalerik ezagunetakoa Frida Kahlo pintore mexikarra izan zuen.

### **DUKESA GORRIA (1936-2008)**

Estorilen (Portugal) jaioa, Luisa Isabel Alvarez de Toledo, Medina-Sidoniako dukesa, diktaturaren kontra aritu izanagatik nabarmendu zen frankismo garaian.

Kartzelaratu zuten (Palomares-ko bonba atomikoak eragindako kalteen konpentsazioak eskatzeko, nekazarien batera manifestazioetan parte hartu izanagatik) eta ondoren erbesteratu zen.

Europako artxibo historiko pribatu garrantzitsuenaren jabe izan zen, eta bizitzaren azken 30 urteetan, Liliana Dahlmann-ekin batera, kudeatu zuen, harekin ezkondu baitzen hiltzear zegoela.

Emaztea artxiboaren presidente izendatu zuen.

### **FEDERICO "HANDIA" (1712 – 1786)**

Prusiako erregea. Estadista eta intelektuala izan zen.

Printze zenean Katte tenientearekin amodio-harremana izan zuen.

Federikoren aita, orduantxe errege, harremanaren haren jakitun zen eta gaitzetsi egiten zuen; azkenik, Katteren burua

mozteko agindua eman zuen gazteluko patioan, semearen logelaren aurrean.

Errege bihurtu zenean, Fredersdorf soldadua kamara-laguntzaile izendatu zuen, eta hura izan zen Federicoz "arduratu" zena hil arte.

Federico XVIII. Mendeko errege ilustratuaren paradigmaren ordezkari dugu.

### **FEDERICO GARCÍA LORCA (1898- 1936)**

Granadan jaiotako poeta eta dramagilea

XX.mendeko espainiar literaturan eragin handiena izan duen eta ezagunena den autorea.

*Madrilgo Ikasleen Egoitza*-n ikasi zuen, Bañuelekin eta Dalí-rekin batera.

II. Errepublikan " La Barraca " antzerki taldearen sortzailea dugu. Hura kultura herrikoiaren dibulgatzailea izan zen.

Guda Zibilaren hasieran fusilatu zuten, gorri eta marikoi izatea leporatu baitzuen.

Idazlanen artean *Poeta en Nueva York, La Casa de Bernarda Alba* eta *Yerma* aipagarrienak ditugu.

### **GERTRUDE STEIN (1874 – 1946)**

Pensilvanian jaio zen.

25 urte baino gehiago Alice B. Toklasekin bizi izan zen.

Paris-eko Stein-Toklasen etxea talde literario garrantzitsu baten bilkura-gunea izan zen. Besteen artean, Ernest Hemingway eta Thornton Wilder egoten ziren

Mugimendu kubistaren pintorekin elkarlanean aritu zen: Picasso, Braque eta Matisse nagusiki..

Bere idazkien bitartez nazioarteko talde zabal bat arte modernora erakartzea lortu zuen.

Idazkera oso iraultzailea zuen. Bere lanen artean apaigarrienak dira, "*Kimu samurak* ", "*Estatubatuarra izan*" eta "*Alice B. Toklasen autobiografia*". Poesía esperimental eta opera-liburuxkak ere idatzi zituen.

### **JACINTO BENAVENTE (1866 – 1954)**

Espaniar dramaturgo eta kritikoa. 1922an Nobel saria jaso zuen.

Hainbat komedia eta drama idatzi zuen, hala nola "*Los intereses creados*" eta "*La malquerida*", baita haurrentzako lan batzuk ere.

Jacinto Benaventek adierazten du autore homosexual batek Espainian XX.mendearen hasieran zer egin zezakeen intelektual munduan.

Sexualitatea modu zuhurrean bizi izan zuen, heur sexu-orientazioa momentu horretako literatur eta kultura-munduan ezagunak baziren ere.

Bere "*El público*" obran homosexualak kondenatzen zuten gizartea salatzen du, hori egitea onartzen duten koldarrak kritikatu, eta edozein maitasun motaren legezkotasuna defendatuz

## JANE ADDAMS (1860 – 1935)

Jane Addams soziologo estatubatubatuarra dugu, erreformatzailea, bakezalea eta sufragista aparta.

1980.urtean Mary Rozet Smith ezagutu zuen eta orduz geroztik bere bikotekidea izan zen.

1889an soziologo erreformatzaileak, Ellen Gatesekin batera, Hull House sortu zuen. Erakunde hura lehenengoa izan zen etorkinei laguntzen, haurtzaindegia eta zenbait hezkuntza-plangintza antolatu bait zituen, baita AEBn etxebizitza merkeak eraiki ere. Aitzindaria erakundeko zuzendari izan zen 46 urtez.

Bakerako eta Askatasunerako Emakumezkoaren Elkartearen sortzenetarikoa eta burua ere izan zen.

Gazteriaren, umeen eta emakumezkoen eskubideen aldeko lana ateratzearren, AEBko gobernuari egundoko presioa egin zion.

Estatu Batuetako Giza Lanaren Biltzar Nazionalaren lehenengo emakume presidentea izan zen (1910).

1931ean Nobel saria jaso zuen lehenengo emakumea izan zen, Bakearen arloan, hain zuzen.

Addamsen libururik ezagunenak "*Demokrazia eta giza etika* " (1912) eta "*Bakea eta ogia, gerra garaian* "(1922) ditugu.

## Jesús Vázquez (1965-...)

A Coruñan jaio zen.

1990etatik telebistan lan egiten du aurkezle telebistako aisialdiko saiotan.

Musikagintzan eta prentsa idatzian ere urrats batzuk eman ditu.

Beste pertsonai ospetsuekin batera. pederastiaz akusatu zuten. Honen inguruan sortutako eskandalua zela eta, Espainiatik alde egin zuen urtebetez. Bueltatu zenean, homosexuala zela esan zuen; eta orduz geroztik, harreman afektiboak agerikoak izan ditu, normaltasun osoz.

Homosexual gazteek erreferentetzat jotzen dute.

2005ko ekainean, homosexualak ezkontzeko eskubidea jasotzen zuen Kode Zibilaren aldaketa indarrean jarri bezain laster, bikotekidearekin ezkondu zen.

2006.urtetik Errefutxiatuentzako NBEren Goi Mandatarien (ACNUR) laguntzaile berezia da.

### **JODIE FOSTER (1962-...)**

Los Angelesen (Estatu Batuak) jaio zen.

Aktorea, zine-zuzendaria eta filologoa da –Unibertsitate-gradua magna cum laude jaso zuen-

“*Taxi driver*” eta “*El silencio de los corderos*” filmetan ageriko antzezlanak egin zituen, bi Oskar sari eta bi Urrezko globo sarijaso izanak adierazgai.

2008an, aldizkari bateko sarien banaketa-ekitaldian lesbiana zela plazaratu zuen, eta, Cydney Bernad, ekoizpen-etxe bateko jabea, bikotekide zuela. Ordurako, bi seme-alaba zituzten.

### **KATE MILLET (1934-...)**

Minnesotan (AEB) jaio zen.

Estatu Batuetako idazlea, eskultorea eta feminista aparta. Belaunaldi modernoko emakume-mugimenduko sortzailetarikoak.

Columbia Unibertsitatean gradu-tesian lesbiana zela esateak izugarrizko iskanbila sortu zuen. Tesi hura, Sexu-politika izenburupean argitaratu zuen, mugimendu feministarentzat iragana eta geroa seinalatu zituen. Emakumeen sexualitatea aztertu zuen eta; estreinakoz, emakumeen sexualitatean plazera helburutzat jo zuen, eta, ez ugalketa, emakumea sexu-subjektu bilakatu zen.

### **LEONARDO DA VINCI (1452-1519)**

Florentzian jaio zen.

Errenazimenduko sortzailetarikoak dugu. Margolaritzan, eskulturagintzan, arkitekturagintzan eta beste zenbait arlotan ere punta-puntako lanak egin zituen.

Ezagutzarekin eta ikerketarekin zituen konpromisoak eta zaletasunak mende guztietako gizon handienetarikoak izatera eramane zuten.

Errenazimenduko erreferenterik garbiena dugu.

1476an sodomiaz akusatu zuten, eta inkisizioak epaitzear egon zen.

### **LUIS MARIANO (1914-1979)**

Irunen jaio zen. Oso tenore ezaguna izan zen.

Gerra zibilaren hasieran, haren familiak ihes egin zuen eta Bordelen erbesteratu ziren. Kantu-ikasketetan han hasi zen .

Kantari gisa ospe handia lortu zuen. Antzerkian El cantor de México eta zineman Violetas imperiales lanetan parte hartu zuen.

Euskal Herrian bizi izan ez bazen ere, sarri etortzen zen. Bisita haletako batean, Alardean parte hartu zuen. Batzuk homosexuala

zela aurpegiratu zioten eta bertan utzi zuen martxa. Harrezkero, ez zuen berriro desfilatu.

Parisen hil zen, eta Arrangoitzen (Biarrotz ondoan).

### **MARGUERITE YOURCENAR (1903-1987)**

Bruselan jaio zen.

Frantziako "L'Académie Française"n lehen emakumea.

Haren liburuetan, homosexualitateaz beti sentikortasunez eta jatortasunez idatzi zuen, baina beti aipamen guztiak gizon homosexualen gainekoak dira; lesbiana-pertsonaia bat ere ez du inork aurkituko Yourcenaren obran, bitxia bada ere.

Idazle honen libururik aipagarriena "Adrianoren oroitzapenak" dugu eta euskaraz itzulita dago.

1934.urtean Grace Frick estatubatuarra ezagutu zuen eta bikotekide hartu zuen, estatubatuarra hil arte.

### **MARTINA NAVRATILOVA (1956-...)**

Pragan jaio zen (garai hartan, CTxekoslovakia), baina Estatu Batuetako herritartasuna du.

1978.urtetik aurrera munduko tenislari onena izan zen, eta postu hartan mantendu zen hainbat urtez.



Martinak hasieran homosexuala zela ukatu eta gero, bisexuala zela aitortu zuen; hori guztia Estatu Batuetako agintariekin arazoak ez izatearren. Azkenik, lesbiana zela esan zuen, eta ondorioz tenis-munduko jazarpen eta presio ikaragarria pairatu behar izan zuen.

Egun gay eta lesbianen eskubideen defentzaile sutsua dugu, eta ez oso aspaldi, hau zioen:

"Gayak eta lesbianak armairutik atera behar dute inguruko jendearekin lasaiago bizi ahal izateko; eta bereziki, biziki-biziki maite duten jendearekin."

### **MICHELANGELO (1475-1564)**

Arkitekto, margolari eta eskultore italiarra dugu.

Gizonezko gazte batzuei zuzenduriko amodio-poemen egilea, beste batzuen artean Gerardo Peririni eta Feos Di Poggiori egindakoak.

Tommaso Cavalieriz maitemindu zen, eta 32 urtean haren bikotekidea izan zen, amorantearen besoetan hiltzeraino.

Sodomiaz akusatu zuten, baina ez zuten zigortu.

Eskultorea hil zenean, ilobak, lotsak jota, Michelangeloren sonetoetako izenordainak eta goitizenak aldatu zituen, homosexuala zela ezkutatzearren.

Paragabeko Kapera Sixtina, San Pedro Basilika eta David eskulturaren egile handia dugu.

## **OSCAR WILDE (1854-1900)**

Idazle irlandarra, baina idazlanak ingelesez idatzi zituen. Ingeles hizkuntzan idatzi izan duten idazleen artean garrantzitsuenetarikoa dugu. Probokatzaileria, buru argikoa eta polemikazalea kementsua.

Moral victoriarrari oldartu zitzaion. Hori zela, eta jazarpena pairatu zuen.

Sodomia delituaz salatu zuten, eta ondorioz, bi urtez kartzelan egon zen. Azkenean, Parisa alde egin zuen, eta han hil zen.

Beste batzuen artean "Dorian Gray-ren erretratua" eta "De profundis" liburuak utzi dizkigu.

## **PATRICIA HIGHSMITH (1921-1995)**

Estatu Batuetan jaio zen idazle ezaguna dugu.

Alfred Hitchcock-ek hark egindako "Arrotzak trenetan" liburua zinemara eraman zuen.

1953.ean "The price of salt" liburua argitaratu zuen, Claire Morgan ezizena, eleberririk amodiozko hareman-lesbiana batez hitz egiteagatik argitaletxeak debekatu bait zion bere izenaz sinatzea. 1991. urtean eleberririk bera argitaratu zuen "Carol" izenarekin eta autorearen sinadurapean.

Beti gutxiengoetik interesa adierazi zuen liburuetan. Azken eleberririk pertsonaia joera guztietako pertsonaia ditugu; homosexualak, bisexualak eta heterosexualak..

Tom Ripley ere hark asmatutako pertsonaia da, eta behin baino gehiagotan zinerama eraman dute.

## **PIER PAOLO PASOLINI (1922-1975)**

Italian jaioa. Zine-zuzendari, idazle eta poeta izan zen.

Ageriko kristaua, gorria eta marikoaia zen. Polemikazalea, heterodoxoa, lirikoa, lohia eta izate-zuzenekoa.

Hainbatetan auziperatu zuten, liburuak, pelikulak eta herritar-jarduerak zirela eta.

Pasoliniren hilketak, egun, argitu gabe jarraitzen du. Lekukoek zioten erasotzaileek hiltzearaino jipotu bitartean, "komunista, marikoaia eta lohia" ohiokatu zutela ziotela.

Haren pelikulen artean "Salo eta Sodomako 120 egunak", "Mila eta bat gauak", "S. Mateoren gutuna" eta "Txerritegia" aipa ditzakegu.

## **SAFO (Ka 650-580)**

Aitzinako Grazian jaio zen, Eresus-en.

Platonek hamargarren musatzat jo zuen

Antologian klasikoetan emakume bakarra, eta intelektual agerikoenetakoa da.

Greziako Lesbos uhartean heziketa-erakunde bat sortu eta zuzendu zuen. Erakundean emakumeek, ez beste inork, ikas zezekaten.

Lesbos, lesbiana-komunitateak ikonotzat hartu zuen. Lesbiana hitza bera ere lesbosen du etimologi-jatorria.

## **SAN AGUSTIN (354-430)**

Tagaste-n jaio zen –Argelia--.

Kartagon bizi izan zen, eta txiki-txikitatik gazte batekin harreman sexu-afektiboa mantendu zuen. "Aitorpenak" liburuan harreman hura deskribitzen du, eta hau dio: "gozoa, inoiz sentitu izan dudan gauzarik gozoena".

Gero kristau bihurtu zen eta umeak izateak helburu ez zuen amodioa gaitzetsi zuen.

## **SOKRATES (Ka 469-Ka 399)**

Aitzinako Greziako Atenasen jaio zen. Mendebaldeko azken 2400urtean kulturako zutabeetarikoa da.

Atenaseko Paiderastia erakundeko ordezkaria zen. Han gazteen irakasle izateaz gain, gazteen maitale ere bazen. Honen inguruko azterketa diszipulo zeukan Platonek elarazi zigun; Sokratesen idatzizko obra zuzenaren arrastorik ez baitugu.

"Symposium eta Phaedros"-en, Platonek eginiko maitasunari buruzko azterketa azaldu egiten digu, eta hau dio: Amodioa da heldu batek gazte eder batekin sentitzen duen desira erotikoaren sarrera. "Gaztearen edertasunak edertasun unibertsalaren gaineko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu". Hori da amodio platonikoa deskribatzen duen funtsa.

Ustelkeriaz salatua eta kondenatua, ikasle eta lugunen artean zikuta edanez bere buruaz beste egin zuen.

### **SOR BENEDETTA CARLINI (1590-1661)**

Moja italiarra. Toskanan 1590.urtean jaio zen; hainbat mojarekin sexu-harremanak izan zituen, besteen artean Bartolomearekin.

Inkizisioak 35 urteko espetxe-zigorra ezarri zion.

Mendebaldean dokumentatua dagoen lehen kasu lesbikoa da, eta Judith C. Brow historialariak ikertu eta argitaratu zuen.

### **SUSAN SONTANG (1933-2004)**

Idazle estatubatuarra. New Yorken jaio zen.

1964.urtean "CAMP"i buruzko oharak entsegu-lana idatzi zuen. Hartan estetika homosexuala aztertzen zuen.

"HIESA eta metaforak" ere idatzi zuen. Intelektualek ederki errespetatzen zuten Sontangen gogoetak zehaztasun handikoak ziren eta.

2003.an Leetretako Asturiaseko Printzea Saria jaso zuen, Espainiako hedabide guztiek gay zela ezkututzen zuten arren.

Annie Leibowitz argazkilari entzute handikoaren bikotekidea izan zen urte askotan. Susanen semeak, David Reiffek, bere hazia eskaini zion argazkilaria haurdun geratzeko, eta ume bat jaio zen.

### **TCHAIKOVSKY (1840-1893)**

Errusian jaio zen. Musikagilea, XIX. Mendeko garrantzitsuenetarikoa.

Garaiko ingurune zapaltzaileak Antonia Milinkova-rekin ezkontzera bultzatu zuen, homosexuala zelako zurrumurruek isilarazteko eta aitak atsegin hartuko zuelako oso; Hartara, homosexual-orientazioa aldatuko zelakoan zegoen. Bateratze fisikoa ezin izan zuen burutu, eta sufrikario bat pasata, bere buruaz beste egiten saiatu egin zen; azkenik, banadu egin ziren.

Biografiak gizon atsekabetutzat jotzen du Tchaibsky.

Musika-konposizioen artean 4., 5., eta 6. –Patetika—sinfoniak, Zisneen lakua eta Kraskagailua aipagarri ditugu besteak beste.

### **TERENCI MOIX (1942-2003)**

Katalunian jaio zen. Hautzaroan eta nerebezaroan zinema miretsi zuen.

Antzinako Egiptorekiko grina sentitzen zuen.

Homosexuala zela agerikoa zen, eta ez zuen hura sekulan ezkutatu.

Camilo Jose Cela-rekin izan zituen liskarrak ezagunak dira, hark publikoki egindako deklarazio homofobikoak zirela eta.

Terenci-k eleberrietan maitasuna eta erotismo homosexuala etengabe azaltzen du.

Planeta sariaren jabe zen. Liburuaren artean hauek aipatuko ditut: "No digas que fué un sueño", "El peso de la paja", "El día que murió Marilyn", "Garras de astracán" y "El amargo don de la belleza".

### **VIRGINIA WOLF (1882-1941)**

Londonen jaio zen.

Bloomsbury taldeko partaide izan zen. Ideologia humanista zuen talde hark moral victoriarari aurre egitea zuen helburu.

Besteak beste, eleberri bikain hauek idatzi zituen: "Orlando"-- Vita Sackville-West-ekiko amodio-harremana onarri du--; "Gela berea" --emakumeen eremu pertsonalaren beharra aztergai du--, eta "Dalloway anderea" --"Orduak" izenburupean zinemara eramán dute--.

Ouse ibaira bere burua bota zuen. Emakumeen literaturan eragin ikaragarria izan du.

**AMAIERA:** Azaldutako pertsonaiak hautaketa baten ondorio izan da, irizpiderik gabekoa aitortu behar dut. Historia-garai guztiko pertsonaiak agertzen saiatu naiz, nahiz eta hutsune handiak izan. Benetan lan aparta egin beharko da, hain ezkutatuta egon den hura argitara eramateko – askotan pertsonaiak berak arrasto guztiak ezabatu zituen, zigorra ez pairatzearren edo hil eta gero pertsonaiaren familiak berak-.

Pertsonaia euskaldun gutxi agertzen dira aurreko biografia zerrendatzean, agian zailagoa delako ikerketa lan hori.

Kasu askotan susmo handiak daude, baina zaila da argitzea; heterosexualitate-presuntzioa izango ez bagenu, heterosexualtzat ere ezingo genuke hartu, eta hala ere heterosexualtzat hartzen ditugu pertsonaia guztiak, kontrakoa argitzen ez den birtartean; hobe genuke zalantzak agerian uztea.

Gogoeta hauek burura datozkit **Antton Abadie**, Hendaian bizi zen zientzialaria - hizkuntzalari, astrologoa, geologoa-. Hauek, nire zalantzak: Ondare handiko pertsona izanda (Frantziako 100 lehenengotakoren artean), 49 urte zituela ezkontzea –ezkontza zuria ote?--; eta ez hori bakarrik, baizik eta adinako emakume batekin, ez al da susmagarria?. Ez al da susmagarria ere, Afrikan urte asko bizi eta gero –famiaren kontrolatik at?—lagun gazte hura, berarekin ekartzea? Kulpa sentimendu ote zuen, zientzialaria izanda, jainkoaren hitza behin eta berriro bere gazteluko hormetan jartzeko? Zeren beldur? Barkamen eske, agian? Hark jakingo zuen, guk ez baitakigu; beraz, dudak eta zalantzak, zalantzak eta dudak.

Ikerketa lana egiten ez den bitartean, nik behintzat heterosexualtzat ez dut hartuko, heterosexual-presuntzioaren alde ez baitu joko.

**OHarra: Aipatu esku-hartze guztiak eta Donostiako ikerketa eskuratu izanez gero, Gehitun eskuratzerik badago**



## Bibliografía:

*"Identidades", Reflexiones sobre la cuestión gay. Didier Eribon. Ed. Bellaterra*

\* *"Sin complejos", guía para adolescentes y jóvenes gays. J. Generelo. Editorial Egales 2007*

\**"Fin de curso". Jesús Generelo. Editorial Bellaterra 2006*

\* *"Adolescencia y sexualidades minoritarias". Generelo, Pichardo eta Galofré. Alcalá Grupo Editorial*

\* *"Hasta en las mejores familias" Todo lo que siempre quiso saber sobre la homosexualidad de sus hijos. Generelo. Ed. Egales*

\* *"Como salir del armario". Daniel Moreno. Ed. Egales*

\* *"Jim en el espejo". Inger Edelfeldt. Ed. Lógez*

\* "¿Seré lesbiana?". Boti García Rodrigo/ Beatriz Gimeno.

\* *"Más que amigas". Jennifer Quiles. Ed. Debolsillo*

\* *"Papá, mamá soy gay". Rinna Riesenfeld.*

\* *"Tal como somos". Manuel Angel Soriano. Egales 2008*

\* *"Homofobia en el sistema educativo". COGAM/FELGTB*

\* *"Sexu joerari buruzko galdera hauei?" GEHITUko hezkuntza batzordea.*

\**"Guille un chico de mi instituto". XEGA.*

\* *"El respeto a la diferencia por la orientación sexual". XEGA.*

[www.xega.org](http://www.xega.org)

\* "Ararteko parte hartzeko V. Fororako materialak". Hans Ytterberg, Generelo, Molinuevo, Mercedes Sanchez, Jose Enrike Brosa, Ester Noya. [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)

## **Helbide interesgarriak:**

**Gehitu:** Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual eta transexualen elkarte

Arrasate kalea, 51. 3.esk. 2005 Donostia

9 43 46 85 16

[www.gehitu.net](http://www.gehitu.net) --Hezkuntza lan-esparruen atalan

[info@gehitu.net](mailto:info@gehitu.net)

**InFasis:** Informazioa eta Laguntza

Arrasate kalea, 51. 3.esk. 2005 Donostia

9 43 45 17 22

[infasis@gehitu.net](mailto:infasis@gehitu.net)

**Enfasis:** Informazioa eta Laguntza

[www.vitoria-gasteiz.org/enfasis](http://www.vitoria-gasteiz.org/enfasis)

**Igp:** Miarretzeko gay eta lesbianen elkarte

[www.igp-biarritz.org](http://www.igp-biarritz.org)

**Rivas Vaciamadrid Institutuko Igtbko tutoreak sortutako web orria:**

<http://tutorglbt.blogspot.com/>

**felgtb:** Estatu espainiarreko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen federazioa.

[www.felgt.org](http://www.felgt.org) (estatu espainiarreko elkarten link ak zintzilik daude)

**EHGAM:** Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimendua

[www.ehgam.org](http://www.ehgam.org)

**Aldarte:** Informazioa eta Laguntza. (Bilbao)

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)

**Hegoak:** (Bilbao)

[www.hegoak.com](http://www.hegoak.com)

**BERDINDU!** Lesbiana, gay, bisexual transexual arretarako euskal zerbitzua [berdindu@ej-gv.es](mailto:berdindu@ej-gv.es)